



DATU BABESERAKO PROTOKOLOA

BAIMENAK

URTERO, IKASTURTE HASIERAN, IKASLEEN FAMILIAK EDO LEGEZKO TUTOREAK IDATZIKO BAIMENA EMAN BEHAR DU:

- Argazkiak ateratzeko.
- Bideoak grabatzeko.
- Argazki edo bideoz jasotako irudiak ikastetxeko web gunean argitaratzeko.
- Ikasleei ikastetxeko @mendatabhi.net domeinuko kontua irekitzeko.

OHARRA: Ikasleren baten familiak edo legezko tutoreak ez badu baimenik ematen (Idazkaritzan erregistratuko da) bere argazkiak edo grabazioak argitaratzeko, tratamendu berezia emango zaie bere taldearen irudi edo grabazioei (argazkia saihestu, pixelatu...) ikastetxeko webgunean, komunikabideetan eta abarretan erakutsi aurretik.

IRAKASLEAK ETA GAINERAKO LANGILEAK

IRAKASLEEEK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- **Konfidentzialtasun eta erantzukizun osoz tratatu** behar da ikasleei, familiei eta langileei buruzko informazioa, haien pribatutasuna eta intimitatea errespetatuz eta ikasleen babesa lehenetsiz.
- **Debekatuta dago eskola-komunitatetik kanpoko pertsonen ikastetxeko matrikulei eta ikasleei buruzko informazioa ematea.** Norbaitek hala eskatzen badu, Hezkuntza Departamentura deitzeko eskatuko zaio, eta han, hala badagokio, dagokion informazioa emango zaio.
- Ikastetxeko **edozein akta dagokion bilerako kideekin bakarrik partekatu ahal izango da**, inoiz ez bilera horretatik kanpoko kide batekin.
- Ikastetxeko gailu bat erabiltzea gomendatzen da bideoak grabatzeko edo ikasleei argazkiak ateratzeko. Hala ere, horretarako gailu propio bat erabiltzen bada, argazkiak edo bideoak zentroko kontuko DRIVEN edo zentroko disko gogor batean gorde ondoren, argazki eta grabazio



horiek gailu propiotik ezabatu behar dira.

- Argazki eta/edo bideoren bat hezkuntza-erabilerarako erabiltzen bada (adibidez, ahozko adierazpena ebaluatzeko), erreklamazio epea amaitu arte gordeko dira, eta, ondoren, ezabatu egingo dira (48 ordu, azken kalifikaziotik aurrera).
- **Ikastetxeko kontuetarako erabiliko da soilik ikastetxeko @mendatabhi.net domeinua.**
- **Ez da partekatuko** norbere sare sozialetan eskola komunitateko kiderik azaltzen den irudirik.
- **Practicum-a egitera datozen irakasleei datuak babesteko erabakitakoa azalduko zaie**, eta ikasleen argazki edo bideoren bat behar izanez gero, baimen espezifikoa sinatu beharko dute familiek.
- Ikasleen inzialak erabiliko dira ikastetxeko dokumentu konfidentzietan eta erabateko konfidentziasuna eskatuko zaie langile guztiei.
- **Ikasleen inzialak jartzea gomendatzen da** irakasleen koadernoetan, karpetetan eta ikasleen ikaskuntza prozesuaren jarraipen-orrietan.
- **Bcc modua erabili beti** edozein mezu elektronikoa idazterakoan, hartzaile bat baino gehiago daudenean.

IKASLEAK

IKASLEEI GARBI AZALDU BEHARREKOAK:

- **Ikastetxeko gmail kontua SOILIK ikastetxeko kontuetarako** erabiliko da.
- **Ezingo da ikastetxeko gmail kontua erabili** beste aplikazio batzuetan erregistratzeko.
- Ez dira erabiliko ikastetxearen kontuarekin lotutako txatak.
- **Pasahitz pertsonalak etxearekin bakarrik partekatuko** dira.
- Ikastetxeko chromebook-ak ezingo dira erabili elkarri argazkiak atera edota grabatzeko.
- Gelan chromebook-arekin daudenean, **ikastetxeko zereginekin zerikusia duten webguneetara bakarrik** sartu ahal izango dira. Beste webgune batzuetara sartzeko, irakaslearen oniritzia beharko da.

KOMUNIKAZIOA

ESKOLA KOMUNITATEKO KIDEEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA:

- Ikastetxeko komunitateko kideen arteko **komunikazioa online izatea lehenetsiko da**. Beraz, irakasleei @mendatabhi.net domeinuaren

kontua irekiko zaie eta familiei gmail kontua eskatuko zaie.

- Kontu horien erabilera ikastetxe-eremura mugatuko da.
- Ikastetxeko esparru bakoitzak bere helbide elektronikoa izango du: zuzendaritza, tutoreak ...
- Webgunean 012947ac@hezkuntza.net helbidea egongo da eskuragarri, zentroarekin harremanetan jartzeko.
- Webgunean ikastetxeko dokumentu eta jarduera nagusiak argitaratuko dira, eskola-komunitate osoaren eskura.
- Online komunikatzeko zailtasunak eta/edo oztopoak dituzten pertsonen kasuan, familia-aniztasunari erantzuna emanez, ikastetxea familia bakoitzaren egoerara egokituko da (paperean, zuzenean azalduz ...)
- **Familiekin irudi edo bideoen bat partekatu behar diegun aldi oro, ohar hau gehituko da mezuan:**
 - **OHARRA: Eduki hauen erabilera eskola komunitatera mugatuta dago soilik**